



**Arartekoaren 2013ko urriaren 14ko ebazpena. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari gomendatzen zaio sarrerak bermatzeko errenta baten azkentzea ondorioz gabe utz dezala, motibazioan erroreak daudelako.**

### Aurrekariak

Maiatzaren 3an, xxxx jaunak sustatutako kexa bat izapidetzea onartu zen. Kexaren zioa sarrerak bermatzeko errenta baten azkentzea zen.

Kexagilearen azalpenaren arabera, 2012. urtearen amaieran, sarrerak bermatzeko errenta eten zioten, bere emazteak ez zuelako enplegu eskaera bat berriztatu. Oker hori zuzendu ondoren, Lanbidek eskubidea berriro eman zion.

2013ko otsailean, berriro ere ordainketak eten zizkieten. Ez zuenez horri buruzko inolako jakinarazpenik jaso, Lanbideren bulegora jo zuen, eta han jakinarazi zioten ordainketa eteteko kausa berbera izan zela, hau da, emazteak ez zuela enplegua eskatzeko izena eman. Itxuraz, esan omen zioten alta hartu eta gero berriro ordainduko ziotela, baina ordainketak eten eta hiru hilabetera Lanbideren jakinarazpen bat jaso zuen, apirilaren 19koa, eskubidea azkendu zitzaiola adierazten, arrazoi honengatik: *“Prestazioaren indarraldiaren bi urteko epea ez betetzeagatik bi aldiz gabetu izana”*.

Ez betetze hori, hau da, enplegua eskatzeko izena ez ematea, modu berezian tratatzen du araudiak. Araudiaren arabera, ez betetze horren ondorioz ordainketa hilabetez eten behar da gertatzen den lehenengo aldi, eta hiru hilabetez hurrengoetan. Horregatik, Arartekoak maiatzaren 27an informazio eskaera zuzendu zion Lanbideri, horren berri emateko. Era berean, eskubidea azkentzeko egindako izapideen berri eskatu zion. Izan ere, erreklamazioaren arabera eskubidea egitatez azkendu zen, jakinarazi gabe eta, beraz, entzunaldi izapidea eskaini gabe.

Abuztuaren 8an Lanbidek erantzuna eman zuen.

2012ko urriaren 11n eskubidea eteteko proposamena egin zen, kexagileak ez baitzion Lanbideri jakinarazi maiatzean “ferietan lan egin zuenik”. Gainera, bere emazteak ez zuen alta hartu enplegua eskatzeko. Emazteak alta hartu zuenean, azaroan ordaintzen jarraitu zuten.





2013ko martxoaren 25ean beste etete proposamen bat egin zen, emaztea ez zegoelako enplegu eskatzaile gisa izena emanda.

Jakinarazi zaigu hori eskubidearen bigarren etenaldia denez gero eskubidea martxoaren 21ean azkendu zitzaiola eta kexagileari apirilaren 19an jakinarazi zitzaiola [sic].

### Gogoetak

1. 147/2010 Dekretuaren 43.2d) artikulua haxe dakar: "147/2010 Dekretuaren 43.2d) artikulua honela dio: *"Diru-sarrerak bermatzeko errenta (edozein izanik ere modalitatea) eten egingo da, honako arrazoi hauengatik: (...) Aplikatzekoa denean, enplegurako prest ez egotea, enplegu-eskatzaile gisa etengabe izena emanda ez egotea edota enplegu egoki bati uko egitea 12.2.b) artikulua enplegu egokia definitzen duen terminoetan. Bestalde, a) hizkiak eteteko arrazoitzat honako hau adierazten du: Bizikidetzaren unitatearen osaeran edo baliabideen mailan izandako aldaketan berri ez ematea ezarrita dagoen epearen barruan"*.

Horrenbestez, badaude eskubidea eteteko arrazoiak. Lehen aldian bi arrazoiengatik, eta bigarrean lehenengo arrazoiengatik.

Aurrekarietan azaldu dugunez, Lanbideri egin genion informazio-eskaeran, azaldu genuen legegileak tratamendu berezia ematen diela ez betetze batzuei. Tratamendu horri dagokio bigarren etenaldiaren zioa. Izan ere, dekretu beraren 45.2 artikuluan ondokoa azaltzen da kasu horiei buruz: *"43. artikulua 2. paragrafoko a), d) eta e) idatz-zatietan aurreikusitako kasuetan, etendura hilabetekoa izango da lehen aldiz gertatzen denean eta 3 hilabetekoa ondoren berriro gertatzen bada, behin gizarteratzeko laguntza pertsonalizatua egin behar duten Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egiaztatzen dutenean, hala dagokionean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuekin koordinatuz, Gizarteratze Hitzarmenean itundutakoa ez dela betetzen"*.

Hau da, enplegu eskatzaile gisa izena ez ematea eskubidea eteteko arrazoiak da, eta ez du 18/2008 Legearen 28.1 e) artikulua mekanismoa aktibatzen: *"Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea azkendu*



*egingo da, edozein izanik ere errenta horren modalitatea, arrazoi hauengatik: (...)Prestazioaren bi urteko indarraldian bi etenaldi izatea ez-betetzeagatik<sup>1</sup>.*

Lanbideren erantzunean ez da araudiaren alderdi berezi hori aipatzen. Enplegu eskatzaile gisa izena eman beharra ez betetzea eskubidea eteteko beste kausa bat bailitzan tratatzen du.

Horregatik, gure ustez, ez dago arrazoirik sarrerak bermatzeko errenta azkentzeko, baizik eta hiru hilabetez eteteko.

2. Azkentzea egiteko bete diren izapideei dagokienez, ondokoa jakinarazi zaigu: *"... prestazioa azkendu da 2013ko martxoaren 21ean. Apirilaren 19an azkentze hori jakinarazi zaió interesdunari."*

Horrela, kexagilearen baieztapena berretsi da, Lanbidek sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea iraungi duelako horretarako izapideak bete gabe. Lanbideri geure informazio eskaeran gogorarazi genionez, 147/2010 Dekretuaren 53.2 artikulua araberan, *"Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea aldatzeko, eteteko edo azkentzeko prozedura hasitakoan, ofiziozko prozedura bat bada, hasiera eman zaiola jakinaraziko zaió titularrari adierazitako bizilekura igorrita, prozedurak oinarri dituen arrazoiak eta izan ditzakeen ondorio ekonomikoak adieraziz, baita ebazteko eta jakinarazteko epea eta 55. artikuluan ezarritako epean esanbidezko ebazpenik ezak izan ditzakeen ondorioak ere, eta hori guztia interesdunek egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten"*.

3. Lanbidek emandako informazioa apur bat nahasgarria da. Izan ere, abuztuaren 8ko erantzun-idazkian, iraungitzea bigarren etenaldia baino lau egun lehenago gertatu zen. Jakinarazi digute jakinarazpena apirilaren 19an egin zela, baina kexagileak emandako ebazpen idazkiaren arabera hori ebazpena sinatu zen data zen. Idazki hori maiatzaren 2an iritsi zitzaion etxera, lehen esan dugunez.

Lanbidek, beraz, erakunde honek eman dion informazioa ez dator bat errealtatearekin, eta hori 3/1985 Legearen 23. artikulua ez betetzea da:

---

<sup>1</sup> 147/2010 Dekretuaren 49h) artikulua berdina dio, baina bi eten aipatu beharrean hiru aipatzen ditu, artean ez zegoelako 18/2008 Legearen erreformara (4/2011 Legeak sartutakoa) egokituta.



*“9.1 Atalean esandako Erakundeetako Ihardutze-sailak, eskatu dakizkien xehapen, agiri, argipide edo garbitasun guztiak lehentasunez eta presaz ematea behartuta daude.”*

Lanbidek, finean, eskubidea “zuzenean azkendu” du. Beraz, 30/1992 Legearen 62.1 e) artikulua deuseztasun kausan legoke, kontuan izanik alegatutako kausa hiru hilabeteko etenaldirako arrazoia litzatekeela, eta ez azkentzerako.

Horregatik guztiagatik, erakunde hau sortu eta arautu duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11. b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, ondokoa egiten dugu:

#### GOMENDIOA

Espedientea 147/2010 Dekretuaren 43.2 d) artikulua etete kausa ikusi zen unera itzul dadila eta, horrenbestez, dekretu horretako 45.2 artikulua aplikatu dadila.